

41. ALDIZKARIA - 2005ko apirilaren 6a

II. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

2.1. ORDENANTZAK ETA BESTELAKO XEDAPEN OROKORRAK

ANTSOAIN

Udal Plan Orokorreko U-1 unitatearen hirigintzako araudi partikularren aldaketa

Antsoaingo Udalak, 2005eko martxoaren 11n egin osoko bilkuran, behin betiko onetsi zuen Udal Plan Orokorreko U-1 unitatearen hirigintzako araudi partikularren aldaketa.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz, argitara ematen da aldaketaren testu osoa.

Antsoainen, 2005eko martxoaren 14an._Alkatea, Alfredo García López.

ALDAKETAREN TESTUA

Udal Planeko U-1 unitatearen hirigintzako araudi partikularrean determinazio hauek gehitu dira:

1. Unitate osoa beheko solairuan okupatzea baimentzen da, soilik hirugarren sektoreko erabilerarekin.
2. Osoko okupazio horren ondoriozko aprobetxamendua izanen da unitate horren egiazko aprobetxamendua.
3. Lurren titularrak ondaretutako edo ondaretu dezakeen aprobetxamendu bakarra gaur egun unitatearen esparruan eraikita dagoen eraikinarena izanen da, salbu beheko solairuaren 248,2 metro karratuko azalera, eraikin horrek okupatzen ez duena.
4. Udal Planeko Hirigintzako Araudiaren 41.7 artikuluari jarraituz, egiazko aprobetxamenduaren edo aukerakoaren eta partikularrak ondaretutako aprobetxamenduaren arteko aldea, soberako aprobetxamendua, Antsoaingo Udalarari dagokio, eta lurzoruaren titular partikularrak soberako aprobetxamendu hori eskuratu beharko luke, duen hirigintza balioarekin, aprobetxamendua gauzatu nahi balu.
5. Eremu horri unitate horretako Hirigintzako Araudi Partikularreko aparkalekuen araubide berariazkoa aplikatu behar zaio, eta, beraz, ez da beharrezkoa unitate horretarako aparkalekuen beharra dagoela jasotzea, beheko solairuan aurreikusten den erabilera baita.

Iragarkiaren kodea: L0504574